

OSAKIDETZAREN PROPOSAMENAK

2014-2015 EPE

Osakidetzak Oinarri Orokorren zirriborro berri bat aurkeztu du, hurrengo aldaketa hauek sartu ondoren:

- Prozesuaren gardentasuna bermatzera "zuzenduriko" neurriak. Kalifikazio-epaimahaien dokumentuak, akordioak edo akta-laburpenak eskainiko zaizkie interesdunei, alegaturiko merezimenduak nola eta zenbat balioetsi dituzten jakin dezaten.
- Posturako aukera duten hautagaien behin betiko zerrenda atera baino lehen, interesdunek puntuazioa berrikusteko eskatu ahal izango dute (gaur arte hala egin behar zen oposiziogile batek erreklamazioa aurkezten zuenean; beraz, orain arte ez ziren berrikusten, erreklamazioa aurkeztu arren?)
- Langileen ordezkari batek, banako eran, parte hartuko du epaimahaikide.

ELA

Mahaian Erkorekaren hitzak eta asmoak ekarri genituen gogora: Eusko Jaurlaritzak beharrezkotzat jotzen du Administrazio Orokorrean (Lakua) balioestea administrazioari balio eta ezaguerak ekartzen zizkieten profesionalak, beharrezkoa zela plantilla zaharberritzea, eta enplegua finkatzea —enplegu plan baten bidez eta behin-behinekotasunaren tasa gutxituz—.

ELAk puntu horiek guztiak eskatu ditu Osakidetzan, baina bistakoa da Eusko Jaurlaritzak non dituen bere interesak, eta hori mingarria da, begirunea galtzea da Osakidetzako profesionalei.

Bestalde, alegazioak ez ditugu aurkeztuko berariazko oinarriak jaso arte, horietan jasoko baitira puntu nagusi gehienak, eta gainera oinarri horietan ikusiko dira EPEaren testuingurua eta izaera, gutxiegia noski, zor dizkiguten 5500 plazako mailara iristeko.

Ikusten ari gara EPE hau negoziatzeko borondatea hutsaren hurrengo dela. EPEaren lehen zirriborroa prestatu baino lehen, zentzu komuneko idazkiak aurkeztu ziren, Osakidetzak indarrean dituen sistema eragileko IT-txartelak eta ondoko bertsioak barematzeko eskatuz, eta antzeko gauza bakunak eskatuz, eta ez da ezta hori ere

kontuan hartu.

Alegazioak aurkeztearekin batera mugaegun bat eskatuko dugu EPEa ebazteko. Gardentasunari buruzko alegazioak... Hori guztia egingo da berariazko oinarriak aurkezten dizkigutenean.

Gogoan izan, bilera horretarako, Osakidetzak hitzeman zuela plantilla funtzionala jakinaraziko zigula, eta berariazko oinarriak ekarriko zizkigula, eta EZ DU EGIN.

Osakidetzak adierazi digu mahai-bilera maiatzaren lehen astean izango dugula, hilabete horretan EPEa abiarazteko asmoa baitago. Ordurako helaraziko digu:

- Plantillari buruzko argibideak eta plaza-kopurua.
- Berariazko oinarriak.
- Plazen gaineko irizpideak.
- Prestakuntzari buruzko planteamendu berria (zerbait gehiago zehaztuz???)
- Osakidetzak, antolamendu-arrazoiak direla-eta, gordetzen duen portzentajea berrikusteko prest.

Ordezkariek eskatu genuen aipaturiko argibide horiek guztiak bilera-egunaren aurretik bidaltzeko, aztertzeko astirik izateko.

Datorren astean azken gorako errekursoak Administrazio Kontseiluari igorriko zaizkio, 2011-EPEaren postuez jabetzea maiatz eta ekainean egiteko, eta EPE berria abiarazi ahal izateko. Dirudenez gidarien kategoria ahanzi zaie...

• LANBIDE GARAPENA

Osakidetzak proposamen bat aurkeztu du, eta galdu behar ez den aukera dela dio (xantaiak eta mehatxuak eginez jarraitzen du).

Guk erantzun diegu aurkeztua dugula gure proposamena, profesional guztiei bidali diegula, eta erantzunaren zain gaudela. Ikusgai dago esteka honetan:

<http://www.ela.eus/es/federaciones/gizalan/sanidad/noticias/propuestas-y-contrapropuestas-de-desarrollo-profesional>

Sindikatuok aho batez eskatzen genion Osakidetzari akordioa alde bakarretik egiteko, etendura erabaki zuen modu berean. Eta hortaz, testua aldatu, zorra onartu eta deialdi berriak egitea, zeren testua, haiek berek idatzitako testua xantaia da, eta gero sindikatuak sinatzera behartu nahi dute; murrizketak egiteko, ordea, ez da beharrezkoa izan gure

sinadura. Osakidetzak hasiera batean azpimarratu du oraingoz ezin duela zorra onartu, eta gero hitzak leundu ditu. Gure proposamena eta gainerako sindikatuek aurkeztuko dituztenak aztertzeke zain geratu dira.

. ORDEZPENAK

Aurkeztutakoaren aldean egin den aldaketa bakarra zera da: ordezpena zenbatgarren egunetik egingo den, 7. egunetik izatetik 4. egunetik izatera jaitsi da.

Mahaiaren aurreko bileran Osakidetzaren eskaintzari buruzko zenbait zalantza azaldu ziren, eta ez dituzte argitu; esate baterako, Lehen Arretaren berariazkotasunaren eragina fakultatiboengan TIS-en gehieneko kopurura mugatzen da (???). Gogora ekarri diegu ilarak ez direla egiten bakarrik kontsulta medikoan, erakusmahaietan ere ilarak sortzen direla (administrari-laguntzaileak, erizainak, zelariak, beharginak ez ordezteagatik). Neurriek kategoria guztiak hartu behar dituzte eraginpean.

2010. urteko ordezpen-egoerara lehengoratzeara eskatu genuen: lehen egunetik eta ia kategoria guztientzat. Soilik oso berariazko kategorietan, aurkitzeko zailetan, atzeratuko zen ordezpena.

Aldi baterako kontratazioaren zirriborro berri bat udazkenerako aurkeztuko digutela esan digute.

• BARNE-MUGIKORTASUNA, BEHIN BETIKOA ETA BEHIN-BEHINEKOA

EPE berriari begira, Osakidetzaren Administrazio Kontseiluari igorri nahi diote aurki mahaira ekarri duten zirriborroa, guri aztertzeke utzi gabe, horren aurrekoa bai utzi zigutela, baina harez geroztik aldaketa batzuk sartu dituzte.

Lotsagarria da, eta zalantzan geratzen da berriro Osakidetzaren negoziazio-borondatea. Datorren astean Gobernu Kontseiluari igorriko dioten dokumentu bat gaur erakutsi digute. Sindikatu guztiok gaitzetsi dugu jokabidea, eta Osakidetzak “leuntzeko”-edo (gero nahi duena egingo du) **2 eguneko epea** eman digu, alegazioak aurkezteko; baina hori diktadore moduan ez agertzearen, negoziazio-itxurak egitearren.

Derrigorrezko mugikortasuneko dokumentuaz galdeturik, irailerako egongo dela erantzun dute, “EZ BAITA PRESAKOA”. Sinesgaitza da, galdetu diezaiekete derrigorrezko

mugikortasunak egitera beharturik dauden profesionalei, ea presakoa den edo ez.

Gogora ekarri genituen mugikortasun-aukerarik ez duten unitateak eta kategoriak, dituzten ezaugarri edo berariazkotasunengatik. Irtenbideren bat eskaini beharko litzaieke.

Berariazko zerrendak eta unitateak erretiratzea eskatzen dugu, lanpostura sartzeko beharrezkoak ez badira, mugikortasunerako ere ez.

- **EUSKARA ETA BEHIN-BEHINEKO KONTRATAZIOAK**

Koderik gabeko plazetan behin-behineko kontratazioak nola egitea azaltzen duen dokumentua aurkeztu digute. Hor, Arartekoak emandako gomendioak jaso dituztela diote (Osakidetza bestea hainbat gehitu du bere kabuz), eta dokumentu hori ere datorren astean Administrazio Kontseiluan aurkezteko asmoa dute. *Gu, berriz ere, benetako negoziatzaileak!*

Dokumentu hori aldeztu aurretik aurkeztu ez digutenez, edukia laburbildu digute honela: lehentasunezko unitateetan errefortzuak sartzen direnean, plaza horiek %100 HE badute, behin-behineko kontratadunak ere hizkuntza-eskakizuna izan behar du.

ELAren aldetik diogu ikuspegi orokorrago bat nahi dugula, Osakidetza euskararen erabilera sustatzeari eta normaltzeari dagokionez. Ez dugu adabakirik gura, ezta euskalduntzearen ardura langileei leporatzea ere. Eztabaida orokor bat egiteko eskatu diegu: hizkuntza-eskakizunak, prestakuntza, behin-behineko kontratazioa eta beste tresna batzuk. Osakidetza, adibidez, pediatriaren kontratazio-poltsan, proiektu bat abiarazi du. Horren arabera ikastaroak ordaintzen ditu, eta malgutasunez antolatzen ditu ikastaroak esparru horretako pertsonal osoak euskalduntzeko aukera izan dezan. Saiakera interesgarria iruditzen zaigu, baina Osakidetzaaren ekimen hori kategoriatara zabaltzea nahiko genuke.

- **2012ko APARTEKO ORDAINSARIA ORDAINTZEAK**

ELAtik esaten dugu ez dugula oparirik eskatzen, zor digutena ordaintzea baizik, eta oraindik %75 zor digute. Gipuzkoako Aldundian osorik abonatu zuten, eta Estatu Espainolak errekurtsioa jarri duen arren, ez da horregatik ezer gertatu. Guk ere dena ordaintzeko eskatzen dugu.

ELAK AURKEZTURIKO GAIAK

- **URDULIZ**

Jon Etxeberriak jakitera eman du bisita bat egingo duela Urdulizera, eta irekiera 2016an izango dela iragarri du. Ulertu nahi dugu aurreikusita daudela eskaini beharreko zerbitzuak; eta bide batez gogoratzen dugu Mahai Orokorraren akordio batek indarrean jarraitzen duela, eta akordio horrek ez duela uzten zerbitzu gehiago kanpora ateratzen. Galdetu diogu zer gertatuko den Urdulizen, eta oraingo hau hirugarren aldia da Mahaian gai horretaz galdetu dugula.

Osakidetzak dio geroko batean berariazko bilera bat egingo duela, irekieraren inguruan, zerbitzu-zerrendak eta abar aurkezteko. Baina ez du zehaztu bilera hori noiz egingo den.

- **SINDIKATUEN PROPOSAMENA, HAUTESKUNDE-ESPARRUEN GAINEAN**

Bilera noiz egingo den galdeturik, Osakidetzak erantzun maiatzaren lehen asterako aurreikusita duen horrekin batera, aztergai guztiak bilera berean jorratuko direla.

- **LEKUALDATZE LEHIAKETA**

Lekualdatze Lehiaketa ere abiarazteko eskatu genuen. Jakin nahi dugu ea kategoria guztiak hartuko diren, azken EPEan lekuri izan ez duten horiek ere, eta ea 2016-EPEan lanpostu huts guztiak eskainiko diren (gure ustez ez dago eragozpenik lekualdatze-lehiaketa honetan eskaintzeko).

- **KONTRATAZIO-POLTSA BERRIAK. NOIZKO?**

Maiatzean abiaraziko omen dituzte.

- **SALAKETA, GREBETAN EGINDAKO PRESIOA DELA-ETA**

Zenbait unitatetan profesionalei presioa egin zaiela salatu dugu, orain dela pare bat astetik hona galdetu izan diete ea greba-eskubidea erabiliko duten ala ez.

- **ERIZAINEN PRESKRIPZIOA**

Poztu gara jakitean Osakidetzak ondo hartu duela neurria, profesionalak babesturik egongo baitira egin ohi dituzten ekintzengatik; eta galdetu diegu zer egingo duten hemendik aurrera eta ea non zeuden, beren profesionalek horrelako ekintzak babesik gabe egiten zituztela jakin arren ezer egin barik. Beste erkidego batzuetan aurrerapausoak eman dituzte profesional horien zereginei dagokienez. Azkenean, legegintzaldia amaitzen delako, estatu-dekretua onesten ez bada, galdetu diegu zer egingo duten, eta eskatu diegu protokolo argi bat profesionalen arteko borrokarik sortu ez dadin.

Osakidetza: *"TXANDA PASA"*, dokumentatu behar direla diote.

- **6/2012 JARRAIBIDEA, lizentziei eta baimenei buruzkoa.**

Antolakunde batzuek ez omen dakite jarraibide hori indargabeturik dagoela, eta kontsultatu beharrean, hura aplikatzen jarraitzen dute.

Osakidetzak dio aste honetan bertan jarraibide bat igorriko diela antolakunde guztiei, jakinaren gainean jartzeko.

- **KONTZILIAZIO NEURRIAK**

Enplegu Publikoaren Legean jasotako neurri berriak aipatzean, Osakidetzak, harriturik, dio ez dituela ezagutzen, eta kontsultatuko duela.